

nere jaioterrian—Gipuzkoa'n dagola ere—eztaietan dantzaten zutela esan zidaten alki-dantza ori.

Nik ez nekin, ez bainintzan eztai batean ere gertatu. Uitzitako «*Arri-kaxkarrak*» esaten zioten Joxe Migel Arrizurietara, basoan gurean ari izan omen, eta bertakoeri ark erakutsi. Gizon onek Azkue zanari kantu ederrik eman zion.

Euskeraz ari geranok Azkue iaunari zor diogu geienik eta euskerak ere bai.

Azkue iauna gizon mardula zan gorputzez, apaiz eredia, biotz oneko gizona. Zortzi urtez egunero iardunarekin zerbait ezagutu nula iduri zait. Iende bearrarekin esku-zabala zan.

Langilleen artean askok zor zioten ogia edo ogibidea. Azkenean langille batek atera omen zun ibaira erori zanean.

Atsedean beza pakean gure Azkue aundiak. Gure oroimenetik ez da beñiera galduko aren izena euskera bizi daño. Ark atera du gaixoa bere zarpilletatik eta soñeko apaiñez iantzirik utzi.

ORIXE

PABLO ZAMARRIPA

(1877 - 1946)



Gaztetandik gure R. M. Azkue aztu eziñarekin *Euskalzale* aldizkarian lanean asi zan.

Geroztik euskel liburu aukeratuak eskeñi zizkigun: *Gramática Vasca*, *Vocabulario*, *Manual del Vascófilo*, *Gora Begira*, *Zaparradak eta*, *Kili-Kili* eta abar.

Beraz ondo irabazi zun euskaltzain izendatua izatea; eta orobat Zeruan gertatuko al da apaiz bezela Errelijioaren alde bere bizitza osoa opa izan bait zun. Alabitz!

X.